

**LACANIAR ALORREKO FORMAZIO
KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN**

“JAKINMINA”

2025-2026 IKASTURTEA

25-2026

Koordinakuntza Batzordea

Marta Casero, Karmen Clemente, Eli Irureta

Antolaketa Batzordea

Marta Casero, Karmen Clemente, Aitor Guisasola, Arkaitz Irazabal, Eli Irureta, Xabier Moñux, Mikel Plazaola, Teresa Velasco, M^a Jesús Zabalo

Informazioa: jakinminaformacionesclinicas@gmail.com

Karmen Clemente	602497407	clementekarmen@gmail.com
Marta Casero	620732839	gautami.mc.mc@gmail.com
Eli Irureta	635205206	eli_iru@yahoo.es

JAKINMINA NIF: G 20712378

Eusko Lege Biltzarrak 2007ko ekainaren 12an onartutako 7/2007 legearen baitan AS/G/08720/2000 zenbakiz inskribatutako elkartea

WEB: www.foropsicoanaliticopaisvasco.org/jakinmina

“JAKINMINA”

LACANIAR ALORREKO FORMAZIO KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN (FCCL)

Ikastaro honetan, jarduerak modu hibridoan mantenduko ditugu, bertaratu ezin duenak Zoom bidez egin ahal izan dezan.

Euskal Herriko Lacaniar Alorreko Formazio Klinikoko (FCCL) prestakuntza teorikoaren eta klinikokoaren 27. kurtsoa dute aurten, psikoanalisian jakin nahi duten eta interesa duten pertsona guztientzat.

Psikoanalisi, zeinaren ardatza Inkontzientearen existentziaren premisari buruzko hizkuntza-egintza bat den. Lacanen asmakuntzarekin hasten den etika, “a” objektuarena, bere teoriaren praxia dena. 1998an hasita, Sigmund Freud eta Jacques Lacanen irakaskuntzetan etengabeko prestakuntza-lanari eutsi dio, bizitzea tokatzen zaigun garaiko subjektibotasunera egokitzeko asmoz.

Prestakuntza hau profesionalei, ikasleei eta jakintzaren edozein arlotatik inkontzientearekin zerikusia dutela sentitzen dutenei zuzenduta dago.

2025-26 ikasturtean bost modulu daude: **Testuen mintegia eta kasu klinikoaren aurkezpena**, Lacanen testuetatik abiatuta teoria analitikoa landu ahal izateko, kasu baten aurkezpenarekin batera.

Testuak lantzeko, **irakurketa-mahaia** proposatuko dugu, ikastaroko testuari buruzko galderak lantzeko eta osatzeko.

Klinikako hirugarren modulua kasu-eraikuntza izango da, kasu baten funtsezko elementuen aurkezpenetik abiatuta. Gune honetan Mintegiko hizlariak parte hartuko du.

Laugarren modulua, teoria analitikoaren **funtsezko kontzeptuak** landu ahal izateko.

Eta azken modulua, **Loturak**, psikoanalisiaren beste diziplina batzuekin artikulatzeko espazio bat da, batez ere filosofiarekin.

MINTEGI TEORIKOA ETA KASU KLINIKOEN AZALPENA

Jacques Lacan

12. MINTEGIA (1964-1965)

PROBLEMAS CRUCIALES PARA EL PSICOANÁLISIS

Mintegi honetan Lacanek praxi analitikorako funtsezko arazoei heldu nahi die. Funtsezko arazo horien artean, identifikazioa, analistaren desira eta honek analisi-bukaerarekin duen harremana nabarmentzen dira.

Lacanek topologiara jotzen du euskarri metaforiko baten bila, subjektuaren nozioa azalera topologikotzat hartzen duena. Lacanek subjektua ulertzen du analistaren esku-hartzeak moztu dezakeen azalera bezala. Jostunak egiten duen bezala, analistaren esku-hartzea ebaketa on bat egitean datza, analistaren desirak eutsitako bereizte-eragiketa.

Lacanek logika matematikora jotzen du analista zentzuan harrapatuta gera ez dadin. Subjektua hutsegitearen logikakoa dela dio, zeroaren eta bataren arteko tartekoa, eta ondorioztatzen du ezin dela zeroa bete, ezta transferentzia jakintzaren eta maitasunaren eskaria ere.

Freuden analisi amaigabearen aurrean, Lacanek analisi-amaiera bideratzen du subjektua *a* objektuari dagokionez identifikatzeko bidetik. *a* objektua esperientzia analitikoaren erdigunean kokatzen du, bestelako analisi-amaiera batera eramateko.

Mintegi honetan, Lacanek klinika bat proposatzen du, zeinetan analistaren desirak subjektua beharrezko “for-da”k egitera bideratuko duen, honek zentzua murriztu eta subjektuaren desira bera atera dezan.

Bai mintegi teorikoa irakasteko, bai Euskal Herriko kideek aurkeztutako kasu klinikoak lantzeko Bartzelonako, Pariseko, Madrilgo, Vigoko, Narbonneko eta Pabeko psikoanalisten partaidetza dugu. Psikoanalisiaren irakaskuntzan eta bere transmisioan adituak diren psikoanalistak.

Egutegia

2025ko azaroak 8

Bernard Nomine. Psikoanalista Paben.
Sarrera eta 1go kapitulua
Kasu aurkezlea: María Jesús Zabalo
Koordinatzailea: Mikel Plazaola

2025ko azaroak 29

Camila Vidal. Psikoanalista Vigon
2. kapitulua
Kasu aurkezlea: Marta Casero
Koordinatzailea: Arkaitz Irazabal

2025ko abenduak 20

Matilde Pelegrí. Psikoanalista Bartzelonan
3. kapitulua
Kasu aurkezlea: Gema Campos
Koordinatzailea: María Jesús Zabalo

2026ko urtarrilak 31

Elisabette Thamer. Psikoanalista Parisen.
4. kapitulua
Kasu aurkezlea: Eli Irureta
Koordinatzailea: Teresa Velasco

2026ko otsailak 28

Roser Casalprim. Psikoanalista Bartzelonan.
5. kapitulua
Kasu aurkezlea: Vanessa Rodríguez
Koordinatzailea: Marta Casero

2026ko martxoak 21

Ana Alonso. Psikoanalista Madrilén.

6. kapitulua

Kasu aurkezlea: Pilar Sampedro

Koordinatzailea: Aitor Guisasola

2026ko apirilak 18

Sophie Rolland-Manas. Psikoanalista Narbonnan.

8. kapitulua

Kasu aurkezlea: Juan B. Jordan

Koordinatzailea: Karmen Clemente

2026ko maiatzak 16

Luis Izcovich. Psikoanalista Parisen.

10. eta 11.,. kapituluak

Kasu aurkezlea: Karmen Clemente

Koordinatzailea: Xabier Moñux

Non

San Sebastian Hotelean (Ilunion) + Zoom

Zumalakarregi ibilbidea 20 Donostia.

Ordutegia

10:00etatik 14:00etara.

2. modulua

IRAKURKETA MAHAIA

12. Mintegiko saioen aurreko irakurketa egingo da.

(Lacan, J. (1964-1965). 12. liburua. Problemas cruciales para el psicoanálisis. El seminario de Jacques Lacan. Jakinmina).

Egutegia

2025ko urriak 21	2025ko abenduak 16	2026ko martxoak 17
2025ko azaroak 04	2026ko urtarrilak 27	2026ko apirilak 14
2025ko azaroak 25	2026ko otsailak 24	2026ko maiatzak 12

Urriak 21ean Jorge Chapuisek topologiari buruzko klase bat emango digu.

Non

Euskal Herriko Foro
Psikoanalitikoaren
Egoitzan.

José Arana 15. -1 solairua, 14.bulegoa + Zoom

Noiz

Asteartetan
20:00etatik 21:30etara

Koordinatzaileak

Mikel Plazaola,
M^aJesús Zabalo eta
Teresa Velasco

KASUA ERAIKITZEA.

Lacane 1974an esandakora garmatza: “Ezinbestekoa da analistak gutxie-
nez bi izatea, analistak efektuak izateko, eta efektu horiek teorizatzen dituen
analistak”.Analista gonbidatuari aurretiazko elkarriketetan kasu kliniko bat
aurkeztea, transferentzia, sintoma, interpretazio eta egintza analitikoari bu-
ruzko ikastaroaren orientazioan. Parte-hartzaileek modu aktiboan parte har-
tzen dute elkarriketan, ekarpen berriekekin eta klinikaren egungo gaiekin.

Egutegia

Azaroak 7a: Kasu aurkeslea Mirta Eiroa

Abenduak 19a: Kasu aurkeslea Arkaitz Irazabal

Otsailak 27a: Kasu aurkeslea Teresa Velasco

Apirilak 17a: Kasu aurkeslea Karmen Clemente

Non

Euskal Herriko Foro
Psikoanalitikoaren
egoitzan.
José Arana 15. -1 solairua,
14.bulegoa + Zoom

Noiz

Ostiraletan
18:00etatik 20:00etara

Koordinatzailea

M^a Jesús Zabalo

4. modulua

KLINIKA PSIKOANALITIKORAKO SARRERA-IKASTAROA

SIGMUND FREUD ETA JACQUES LACAN

Freudek eta Lacanek psikoanalisiaren irakaskuntzan eta transmisioan erabiltzen dituzten psikoanalisiaren funtsezko kontzeptuak landu nahi ditugu.

2025-2026 ikasturtean zehar, Freuden hiru testu aztertzea proposatzen dugu, “Psikoanalisiaren funtsezko arazoak” (1965), Lacanen 12. mintegiarekin lotuta.

– Psicopatología de la vida cotidiana (1901) VI. liburukia (Amorrortu)

Publiko orokorrari zuzendutako obra da, eta azalpen eta oinarritzko doktrina psikoanalitikoa jasotzen ditu, adibide ugariarekin. Freudek idatzi honetan hitz egiten digu ahanzturari, hizketaren lerratzei, baldarkeriei, huts egindako egintzei, egintza sintomatikoei, sineskeriari edo errakuntzei buruz. Hauek, ametsekin batera, Freudi neurosiei buruz egindako bere aurkikuntzak bizitza animiko normalera zabaltzea ahalbideratu zioten. Horrek guztiak berak “lehen eta bigarren mailako prozesua” deitu zituen funtzionamendu psiki-koko bi modalitatearen funtsezko tesia erakusten zuen.

– Psicología de las masas y análisis del yo. (1921) XVIII. liburukia (Amorrortu)

Bi norabidera apuntatzen du: alde batetik, masen psikologia azaltzen du norbanakoaren adimenaren psikologian gertatzen diren aldaketetan oinarrituta, eta, beste aldetik, urrats bat harago darama Freudek psikearen anatomia estrukturalari buruz egindako ikerketa, “Plazeraren printzipiotik haratago” bere obran jada aurreirudikatu zuena.

Psikologia indibidualaren eta psikologia sozial edo masaren psikologiaren arteko aurkakotasuna lantzen du. Hau da, gizaki singularrari lotzen zaiona, nartzisista deitu ditugun bere pultsio-mozioen asebetetzea lortzeko bideak aztertzen dituen, eta gizabanakoa leinu, herri, kasta, estamentu, erakunde edo familia bateko... kide gisari lotzen zaiona.

– Análisis terminable e interminable (1937) XXIII. liburukia (Amorrortu)

Idazki horren ondoren, “Construcciones en análisis” idatzi zuen, eta Freud-ek praktika psikoanalitikoari buruz bere bizitzan argitaratu zituen azken bi idazki hertsiki psikoanalitikoak dira.

Oso Freuden estiloan, teknika analitikoaren aukeren eta mugen ikuspegi orokorra ematen du.

Etengabe itzultzen garen erreferentzia-testua.

S. Freud Psicopatología de la vida cotidiana. (1904) VI. liburukia Amorrortu-III. Liburukia Biblioteca Nueva

S. Freud Psicología de las masa y análisis del Yo (1921) XVIII. liburukia Amorrortu-VII. Liburukia Biblioteca Nueva

S. Freud. Análisis Terminable e interminable (1937) XXIII. liburukia Amorrortu-IX. Liburukia Biblioteca Nueva

2025-2026ko egutegia

2025ko urriak 28a. S. Freud “Psicología de las masa y análisis del Yo” (1921) I-VI Kap. Mikel Plazaola

2025ko azaroak 18a. Psicología de las masa y análisis del Yo (1921) Cap VII al XII. Arkaitz Irazabal

2025ko abenduak 9a. S. Freud Psicopatología de la vida cotidiana. (1904) Cap. I al IV. M.^a Jesús Zabalo

2026ko urtarrilak 13a. S. Freud Psicopatología de la vida cotidiana. (1904) Cap. V al VIII. Teresa Velasco

2026ko otsailak 10a. S. Freud Psicopatología de la vida cotidiana. (1904) Cap. IX al XII Marta Casero

2026ko martxoak 10a. S. Freud. Análisis Terminable e interminable (1937) Cap I al III Aitor Guisasola

2026ko apirilak 7a. S. Freud. Análisis Terminable e interminable (1937) Cap. IV al IV. .Karmen Clemente

2026ko maiatzak 5a. S. Freud. Análisis Terminable e interminable (1937). Cap. VII y VIII. Xabier Moñux

Non

Euskal Herriko Foro
Psikoanalitikoaren
egoitzan.
José Arana 15. -1 solairua,
14.bulegoa + Zoom

Noiz

Asteartetan
20:00etatik 21:30etara

Koordinatzaileak

Karmen Clemente,
Marta Casero eta
Eli Irureta

5. modulua

LACANIAR ALORREKO LOTURAK

Ikasturte honetan hizkuntzaren gaia jorratuko dugu, eta Giorgio Agamben “El lenguaje y la muerte” testua komentatzen jarraituko dugu. Negatibotasunaren lekuari buruzko mintegia.

Angustia eta izateko zailtasuna filosofia garaikidearen ikuspegitik aztertuko ditugu honako testuak erabiliz:

Martin Heidegger: “De camino al habla” eta “Sobre el logos” artikulua (“Discursos y Conferencias”)

Ludwig Wittgenstein: “Tractatus logico-philosophicus” eta “Conferencia sobre la Ética” Saul Kripke filosofo amerikarrarengana hurbilduko gara.

Eta literaturaren eta poesiaren bidez angustia beste era batera tratatzen duten idazleen bitartez ere: Charles Baudelaire, Stephane Mallarmé eta Guy de Maupassant.

Egutegia

2025ko azaroak 11	2026ko martxoak 03	2026ko maiatzak 19
2025ko abenduak 2	2026ko martxoak 24	
2026ko otsailak 03	2026ko apirilak 21	

Non

Euskal Herriko Foro
Psikoanalitikoaren
egoitzan.
José Arana 15. -1 solairua,
14.bulegoa + Zoom

Noiz

Asteartetan
20:00etatik 21:30etara

Koordinatzailea

Josune Aréjula
Hizlaria
Angel Murias

Lacaniar Alorreko Formazio Klinikoen Jardunaldi bateratua

XXIV. Jardunaldi bateratua Gijonen burutuko dira, 2026ko maiatzaren 30ean. Bertan, ondorengo Kolegio Klinikoei hartuko dute parte: ACCEP Associació Catalana per a la Clínica i l'Ensenyament de la Psicoanàlisi, Galiziako Elkartea Psikoanalitikoak/ Foro Galego de Psicanálise, Associació de Clínica Psicoanalítica de Tarragona (ACPT), Madrilgo Kolegio Psikoanalitikoak, Col·legi de Clínica Psicoanalítica de Valencia, Lacaniar Alorreko Formazio Klinikokoak/Asturiasko Foro Psikoanalitikoak, Jakinmina Lacaniar Alorreko Formazio Klinikokoak Euskal Herrian, Seminari de Psicoanàlisi de Tarragona.

Jardunaldirako inskribapenak salneurri murrizketa izango du Formazio Klinikoko ikasle eta irakasleentzat.